

Pertsona eredua

Bazatoz GUrekin?

TXINPART

ALDIZKARIA / 2024ko urtarrila / www.haurtzaroikastola.eus

AURKIBIDEA

Agurra	_03
Gai Nagusia	_04
Berrikuntzak	_08
Irakasleak	_10
Gurasoak partaide	_16
Urmendi	_18
Hatzak bete lan	_22
Argazki-albuma: San Nicolas, San Tomas, Abenduak 24	_36
Taldea	_38
Laburrak	_40
Eskolaz kanpokoak	_46
Oiartzo	_48

TXINPART

Hautzaro Ikastola
Elorrondo z/g - 20180 Oiartzun
T.: 943 49 16 59
hautzaro@ikastola.eus
LG: SS-129 / 2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
DIXIDU Diseinu Grafikoa



AGURRA

Kaixo, irakurle!

Txinpart! aldizkariaren 80. alea duzu ireki berri duzun hau. Zenbaki asko argitaratu ditugun arren, gehiagorako gogotsu gaude, eta oraingoan ere, badugu gai mordoa zuei kontatzeko eta erakusteko.

2023 urteak gauza asko ekarri zizkigun.

Horien artean, aurreko alean aurreratu genuen zuzendaritza talde berria. Oraingo kideok, aurrekoei erreleboa hartuta, gidaritza lanak hasi ditugu ilusioz, haiek irekitako bidean aurrera eginez; besteak beste, 2021eko batzarrean ahobatez onartutako Plan Estrategikoari bukaera ematea dagokigu.

Bide batez, esaera zaharrak dioen moduan, **eroriz ikasten da oinez**. Ez gara ardura maila hauetan ikasitakoak, horregatik, gure berritasunean, bihoaz aldeztu aurretik oker egin ditzakegunen gaineko barkamenak.

Era berean, aprobetxatu nahi genuke ale hau aurreko zuzendariari, Aritz Gonzalez Arruabarrenari, eta bere legealdian aritutako ikasketaburu, koordinatzaile, kontseilukide, batzordekide, lehendakari, gelako ordezkari guztiei, bazkideztaren izenean eskainitako guztia eskertzeko. **Nori berea da zuzenbidea.**

Sarrera ez dadin gehiago luzatu, pertsona ereduari dedikatu nahi genioke *Txinpart!* zenbaki hau. Izan ere, heziketa da gure eremua, **kimua** loratzen laguntzea gure egitekoa, hazieran bidelagun **izatea** eta, hasieran, zurkaitzari lotuta bada ere, pertsona autonomo izateko balioetan hezteak. Baina ibilbide hau ezin dugu familiarik gabe egin, **elkarrekin** marraztu behar dugu.

Horregatik, **bazatoz Gurekin?**

PERTSONA-EREDUA

Ikastolak jaiotzetik aurrerakoia izan gara, pedagogikoki inkorformistak eta egiten dugun hori etengabe aztertzeke, hobetzeko, moldatzeko eta berritzeko grina izan dugu. Une honetan, horri gehitu behar zaio etengabe aldatzen ari den gizarte batean murgilduta bizi garela, ziurgabetasuna nagusi den gizarte batean, alegia.

Gaur artean, etorkizuneko behar horiek presente izanik eta ikaslea erdigunean kokatuz, funtsezko konpetentzien garapena jomuga duen hezkuntza-eredua martxan dugu ikastolan.

Aldaketa horiek askotarikoak dira, besteak beste, demografikoa, klimatikoa eta ekologikoa aipa daitezke. Eta, horrek guztiak pertsonengan eragina du, izan ere, aldaketok desoreka soziala, hizkuntza-komunitateen desagertzea eta bakardadea eragin dezakete. Horren aurrean argi dago barne-sentotasuna, erresilientzia eta malgutasun mentala gero eta beharrezkoagoak izango ditugula. Gainera, lanpostu berriak sortuko direnez, horiei eraginkorki erantzuteko moduak topatu beharko ditugu.

Gizartearen aldaketa horiek hezkuntzan nabarmenki islatzen ari dira, baita Haurtzaro Ikastolan ere; eta, horri aurre egiteko prest egon behar dugu. Erronka ez da makala, baina ziur gaude orain arte egin ditugun urratsei jarraituz, eraginkorki erantzuteko gai izango garela. Gaur artean, **etorkizuneko behar horiek presente izanik eta ikaslea erdigunean kokatuz, funtsezko konpetentzien garapena jomuga duen hezkuntza-eredua martxan dugu ikastolan. Ekinez ikasten duen komunitatea izan nahi dugu**, hots, eguneroko bizitzako arazoei aurre eginez, proiektuak eta ikerketak garatuz eta elkarreraginean ikasten duen ikasle- eta irakasle-taldea.

Euskal Curriculumuma ardatz izanik, konpetentzien garapenean oinarritutako hezkuntza ereduen aldeko hautua egin genuen duela hamarkada bat, beraz, urte hauetan guztietan ez gara geldirik egon. Hezkuntza eredu hori ikaslearen irteera-profilean dago oinarrituta, eta galdera honi erantzun nahi dio: **Zer nolako ikasleak nahi ditugu oinarritzko hezkuntzaren amaieran?** Irteera profilean oinarritzen da onartu berri den Curriculum Legea, baina ikastolok ideia horretan urrats bat gehiago egin nahi dugu, **pertsonarengan zentratutako hezkuntza ereduaren sinesten dugula** nabarmentzeko. Asmoaren sakontasuna eta gauzatzeke behar duen hausnarketa maila kontuan hartuz, **2023-24 ikasturtean Haurtzaro ikastolako Talde Pedagogikoa sortu dugu.**

Taldea zuzendaritzako kideez eta etapa guztietako irakasle-talde batez osatua dago, eta hasia da pertsona-ereduaren gaineko gogoetan lanean.

Asmoa sakona dela aipatu dugu arestian, eta hala da. **Pertsona ereduaren da Hezkuntza Proiektuaren elementu giltzarria**, izan ere, bertako ezaugarriek definitzen dute ikastolako jardun osoa, gela barrutik hasi eta ikastolako bestelako espazio guztietara hedatuz. Eta, jardun pedagogikoan zentratuz, berak gidatzen du ikasgelako eta kanpoko curriculum,

01. GAI NAGUSIA

ikas-irakas prozesuaren metodologia eta hain garrantzitsua den ebaluazioa ere. Era berean, pertsona ereduaren ezaugarriek ikaslearen hiru behar psikologikoak asetzea dute helburu, hain zuzen ere, autonomia, konpetentzia eta harremanak; hori guztia **ikastolan definitutako bizikidetzako hamalau printzipioak ahaztu gabe**. Begibistakoa da gai horretan lan handia egin dugula jada, baina uste dugu pertsona ereduaren lanketarekin ikastolan hain sakonki landutako **alderdi horiek guztiak teiltatu bakar baten azpian** biltzerik izango dugula. Ondorioz, uste dugu Haurtzaro Kkastolako proiektuari are eta osotasun, sendotasun eta koherentzia handiagoa emango diogula.



Talde Pedagogikoa abiatu da, lehen urratsak egin ditu eta **Zer nolako ikasleak nahi ditugu oinarritzko hezkuntzaren amaieran?** funtsezko galderarekin aurkeztu zaio irakasle klaustroari. Jasotako erantzunak taldea hauspotu du eta **pertsona ereduaren ezaugarriak definitzea eta gizarteratzea izango da hurrengo ufada**. Ondoren, etorriko dira erronka berriak, besteak beste, pertsona ereduaren garatzeko konpetentzien, metodologiaren eta ebaluazioaren zehaztapena.

Aurrerantzean lan eskerga dugu egiteko, lan zoragarri eta erakargarria, ikastolaren iparrorratza izango dena; guztion artean egingo duguna.





HAURTZARO IKASTOLAKO KANPO-ESPAZIOA
ERALDATZEKO PROZESU PARTE-HARTZAILEA

/// SARRERA

Haurtzaroaren kultura sustatu asmoz, haurrak erdigunean ezartzen dituen prozesu honetan, azpimarratzekoa, txalotzekoa eta eskertzekoa da ikastola-komunitateko eragile guztien inplikazioa eta parte-hartzea. Beraz, azalpenarekin hasi aurretik, eskerrik beroenak hurrei, gazteei, hezitzaileei, langileei, familiei, herriko elkarte ezberdinei, Udalari...

Mila esker guzti-guztiei.

Proiektua bere osotasunean aurten garatu bada ere, ez da izan 2023an piztu den kezka baten ondorio. 2018an dagoeneko hainbat bilera eta hausnarketa saio eginak ziren. Tamalez, hainbat gertaera eta faktore ezberdinek prozesua atzeratzera bultzatu zuten.

Urte luzez, hezkuntzan izan diren eraldaketarako eta garapenerako gogoeta zein lanketa gehienak gela barruko jardunari begira egin izan dira.

Kanpoko une-guneak aldiz, euren izenek (aire hartzeak, jolasgaraiak, eskolaz kanpoko jarduerak, bazkalorduak, eremu ez-formala...) adierazten duten bezala, "pausatzeko", "deskonektatzeko", "hitz egiteko", "ongi pasatzeko", "desfogatzeko", "behar fisiologikoak asetzeko"... momentutzat hartu izan dira historikoki.

Azken urteetan berriz, ikusmolde eta ulertzeko modu berri bat daude. Kanpo-espazioek egunerokotasunean sekulako garrantzia dute. Bereziki bi faktoreei dagokionez: elkarbizitza eta euskara. Batetik, ikasle guztiei aukera berdintasunean hezteko testuinguruak eskaintzeak norbanakoari zein komunitateari dakartzkion onurak begi bistakoak direlako; eta bestetik, hizkuntza-muda gehienak aisia esparruan ematen direnez, ikasleen hizkuntza ohituretan eta jarretan ere eragitea bilatzen delako.

Hortaz, kanpo-espazioak berariaz pentsatu eta antolatzeko premia bizia dagoela ondoriozta genezake.

Jolasa sozializazioaren oinarri bat da, murgilduta dagoen unibertso soziala zer nolako den ikasten duelako haur batek jolasean. Jolasen eta jokoen barne logika testuinguru sozialaren balioen baitan finkatzen denez, ezinbestekoa zaigu ikasleek topatuko duten testuingurua balio hezitzaileetan oinarritutako bizipenak izatera bideratua izatea. Izan ere, zoritxarrez, gaur egun indibidualizazioerantz, lehiakortasunerantz, errentagarritasunerantz eta estandarizazioerantz garamatzate jendarte zoro honen inertzia eta korrante gehienek.

Gero eta bizipen gutxiago izan ohi dituzte ikasleek natura-eremuan zein ziurgabeak diren espaziotan.

Jolastoki gehienetan atzematen diren material eta egitura gehienek, erabilera konkretu eta mugatu batera bideratzen dute. Gainera, kasu gehienetan espazioaren erdian kokatuak izanik, sistema heteropatriarkalaren egitura erreproduzitzera eta lehen pertsonen bizitzera daramatza ikasleak.

Bestalde, teknologia berrien eta sare sozialen munduak gain hartu duen aro honetan, aurrez aurre topa ditzakegun estimuluek bere biziko garrantzia dute heziketa prozesuan. Pertzepzioarako estimulu aniztasunak ezberdintasunarekiko onarpena eta balioespena garatzen du, bakoitzak dakienarekin, ez dakienarekin eta jakin nahi duenarekin ezagutzak eraikiz eta gaitasunak garatuz.

Haurrak berezkoa duen aniztasuna onartzean dago gakoa, honek aniztasun guztien bermea baitakar.

/// HELBURUAK

Euskararen eta euskal kulturaren oinarritutako prozesu honetan, Oiertzungo herriari ekarpen esanguratsu eta eraldatzaile bat eskaintzea ere

integralerako? Ingurune naturala edo ziurgabea. Naturan arriskuak duen indarra eta balore hezitzailea gune urbanoan kasik indargabetua gelditzen da.

/// PROZESUA

Lehenik eta behin, haurrak dituzten estereotipoak desegiten lagundu behar izan diegu, ausartzera, desiratzera, asmatzera... bultzatuz.

Espazioaren antolaketa berrian haurren ikuspuntua eta pentsamolde desberdinak aintzat hartzen direla bermatzeko, "arkitektura parte-hartzailea"-ren esperientzian oinarritutako gara. Gauzatuko diren lanen definizioa eta ezaugarriak zehazterakoan haurren ideietatik abiatuko gara.

Horretarako, marrazkiak, ekintza praktikoak, argazkiak, moldatzeko oreka, buztinezko eraikuntzak... burutzeko aukera ematen diegu esperientzia honen bidez, maketa bat gauzatzeraino.



izan da helburuetako bat. Ikastola herri onurarako kooperatiba izanik, feminismoan eta inklusioan oinarritutako jendarte batekin amesten dugunez, bide horretan haziak ereiten jarraitzeko ekarpen gisa ulertzen dugu.

Horrelako ekimen edo prozesu batek komunitatea indartzea ere badu helburu nagusietariko bat, elkarbizitza aberasten duen aniztasunari erantzuteko.

Haurrek jolasaren bitartez munduaren konplexutasunari aurre egiteko esperientzia bizi dute, dimentsio berri baten liluraren aurrean kokatuz. Askatasun osoz, egin ezin daitekeena, asmatu egin daitekeelako. Eta zein ulertzen dugu dela testuingururik aproposena garapen

Haurren beharrak eta nahiak ezagutuko ditugu eta seguruenik, hein handi batean, ezingo ditugu haiek adierazi moduan egikaritu, segurtasun eta baliabide arrazoiengatik nagusiki. Baina proiektua gauzatzeko ardura dutenentzat argibide preziatuak izango dira.

Hurrei argi utzi zaie hastapenetik, errealtate marko baten barnean idatziko dugula istorio hau eta bi faktore erabakigarri hauek baldintzatuko dutela prozesuaren emaitza.

 Ikusi 2023ko apirilaren 22an ospatu genuen egunaren laburpen bideoa:
<https://www.youtube.com/watch?v=35Xw-QyRtpg>

03. IRAKASLEAK



Haur Hezkuntzako irakasleok jolasaren inguruko formazioa jaso dugu aurtengo ikasturtean. Jolasak, haurren garapenean duen garrantzia ezin dugu uka, garapen osasuntsurako oinarria dela baitakigu. Eta hori haurren ikaskuntzarako oinarri izaki, hona hemen egin ziguten galdera: Gure ikastolan nahiko denbora eskaintzen al diogu jolasari? Baiezko erantzuna argi genuen arren, jolas momentu ezberdinak identifikatzen eta aztertzen hasi ginen.

Eta, zer da jolasa? Ekintza autonomo eta autorregulatua da; organismoaren barnetik sortzen den bizitzako oinarritzko mugimendua. Barneko tentsio baten eraginez sortzen da; honen aurrean, organismoak oreka, autoerregulazioa bilatzen du. Tentsio horri esker mugitzen da eta jolasten du haurrak, plazera eta bere buruarekin gustura sentitzea bilatuz. Bizitza tentsioa eta distentsioa da. Jolasari, helburuek baino, bizipenek, plazerak eta autoerregulazioak bermatzen diote zentzua.

Zertan laguntzen du jolasak? Jolasaren onurak lau alderdietan identifikatu genituen: kognitiboan, sozialean, emozionalean eta fisikoan.

1. Alderdi kognitiboan:

- Ebulutiboki garatzeko aukera: orain eta hemen garatzeko eta gaintzeko aukera ematen du.

- Komunikazioa eta hizkuntzaren garapena errazten du.
- Hainbat aspektu barneratzeko balio du: hiztegi berria, gertakarien zergatiak, materialen ezaugarriak, kontzeptu zientifikoak, kontzeptu matematikoak...
- Arazoen ebazpenerako estrategiak garatzeko lagungarria da: konponbideak aurkitzea, arrazoitzea, egoera eta testuinguruak egokitzea, egiteko moduak eta planak aldatzea...
- Sormena eta irudimena sustatzen ditu.
- Pentsamendu dibergentearen garapena sustatzen du. Ideia eta irtenbide anitzen sorkuntza ahalbidetzen du.
- Motibazioa pizten du: esperimentatzeko, deskubritzeko, frogatzeko, saiatzeko... aukera ematen du.

2. Alderdi soziala:

- Ingurukoekin sozializazioa errazten du.
- Gaitasun sozialeak eta enpatia garatzeko balio du: arauak elkarrekin sortzeko, kooperatzeko, autokontrola garatzeko...
- Arauak negoziatzen eta konpromisoak hartzen ikasteko lagungarria da.



- Besteen nahiak eta interakzio egoerak ulertzea ahalbidetzen du.
- Inguruko errealitatea eta giza harremanak ulertzen laguntzen du.
- Seinale sozialekiko sentsibilizatzen du, eta horiek interpretatzeko bidea eraikitzen du.
- Arau sozialeak barneratzea ekartzen du.

3. Alderdi emozionalean:

- Autoestimuan, auto-errespetuan eta autoerregulazioan onurak ditu.
- Estresa gutxitzen laguntzen du.
- Jolasten gaudenean gure garunak onuragarriak diren substantzia desberdinak jariatzen ditu: endorfina (zorionarekin lotuta), dopamina (motibazioarekin lotuta), serotonina (erregulazio emozionalarekin lotuta) eta oxitozina (konfiantzarekin lotuta).
- Jolasean duten aukera eta kontrol sentsazioak AUTONOMIA garatzeko ahalbidetzen du.
- Emozioen erregulaziorako onuragarria da.
- Esperientzia emozionalak berriro bizitzeko aukera ematen du, egoera gogorrei aurre egiteko bitartekariak eskainiz.
- Jolasa ariketa emozionala da. Irudikatutako beldurrei eta horiei emandako erantzun seguru bidez emozioei aurre egiten laguntzen du.

4. Alderdi fisikoan:

- Gorputza eta mugimendu aukerak aurkitzeko balio du.
- Mugimenduen koordinazioa sustatzen du.
- Gorputzaren osasuna eta egoera fisikoan hobekuntzak ekartzen ditu.
- Garunaren garapenerako gakoa da eta lotura sinaptikoak errazten ditu.
- Zentzumenak elikatzen eta sustatzen ditu; sentsazio berriak aurkitzen laguntzen du.
- Sistema kardiobaskularra garatzen laguntzen du.

Jolasa osasuntsua eta aberasgarria izan dadin, jolasaren zaindari izango den heldua behar du. Helduak rol garrantzitsua baitu jolasean. Jolasarekiko presentzia, interesa eta sentikortasuna izan behar ditu. Arretaz behatu eta helburua identifikatu behar du (jolastuz gero, nola eta zertarako?). Jolasak irakatsi, eta arau gutxi eta garbiak adierazi behar dizkie haurrei. Hau guztia bideratzeko, haurren interesak oinarri hartuta testuingurua diseinatu beharko du.

Jolasa garapenaren, ikaskuntzaren... oinarria dela dakigulako, jolasa plazera delako... JOLASTEN JARRAITUKO DUGU!






Elkarrekintzaren arabera, hiru ikasketa mota bereizten ditugu: indibidualista, lehiakorra eta kooperatiboa.

- **Indibidualista:** ikasle bakoitzak bakarrik lan egiten du.
- **Lehiakorra:** ikasle bakoitzak bakarrik lan egiten du, bere ikaskideekin lehiatuz.
- **Kooperatiboa:** ikasleek lantalde txikiak osatzen dituzte, elkar laguntzeko eta adoretzeko, ikasteko orduan.

Helburuei dagokienez, lehen kasuan, ez dago ikasleen elkarren arteko mendekotasunik. Bigarrenean, elkarren arteko mendekotasuna negatiboa da (lehiakorra), eta hirugarrenean, positiboa (kooperatu egiten baitute).

Azken honen aldeko apustua eginez, formazio saioak jaso dituzte LH eta DBHko irakasleek lehen hiru hilekoan, ikasitakoa lehenbailehen geletara ekartzeko asmoz. Ez da gai berria, baina helburua beti egunean egotea da, **ikasleak zentroan jarri eta haiei onena eman ez ezik, haien onena sustatzeko asmoz.**

Ikasketa motak: elkarrekintzaren baitan



Taldekatzeak



Ikasketa kooperatiborako taldekatze eraginkorrenak heterogeneoak direla aditu guztiek baieztatzen dute. Hala ere, irakasleak definitzen duen helburuaren baitan, taldekatze homogeneoak egitea interesgarria izan daiteke.

HOMOGENEO	HETEROGENEO
• 3-4 pertsonetako taldeak • Irakasleak momentu konkretu batean duen helburu zehatz bat lortzeko planifikatzen da: ◦ Zailtasunak dituzten ikasleei laguntza zuzenagoa emateko. ◦ Beti beste batzuen menpe ari diren ikasleei taldearen lidergo eramateko aukera eskaintzeko. ◦ Ikasleen interesen baitan taldekatze bat sortzeko beharra dagoenean.	• 3-4 pertsonako taldeak • Taldeko lanketa kooperatibo gehienetan erabiliko duguna. ◦ Gaitasun maila ezberdinetakoak. ◦ Interes ezberdinetakoak. ◦ Lidergo mota ezberdinak taldearen dinamizazioan ikusteko. ◦ Adin ezberdinetakoak elkartzeko. ◦ Trebetasun sozial espezifikoak lantzeko.

Elkarmenpeketasuna egituratzeko moduak

Xedearekikoa: norbanako bakoitzak bere xedeak lortuko ditu baldin eta gainontzeko kideek lortzen badituzte.	Sari eta ospakizunekikoa: taldeak xedeak lortzen dituenean, taldekide guztiek sari bera jasoko dute. Ahalegina eta arrakasta ospatu egin behar dira.	Baliabideekikoa: baliabideak taldekideen artean banatzen dira eta guztiak dira lana burutzeko beharrezkoak. Baliabideak mugatzeak, horiek partekatzea dakar.	Rol edo funtzioekikoa: elkarren arteko lotura duten funtzioak banatzen dira taldean: irakurlea, idazlea, ulermena baieztatzen duena...
Lanekikoa: lana modu kolektiboan banatzen da, bakoitzaren zatia egitea beharrezkoa da guztion lana egin ahal izateko.	Identitatearekikoa: taldeko identitatea sortu eta talde pertenezkoa lantzen da. Elkarren arteko zaintza, ardura izatea beharrezkoa da kooperazio egitura batean.	Kanpo mehatxuekikoa: talde ezberdinen arteko lehia sortuz, talde barruko pertenezkoa lantzeko aukera sortzen da. Hezitzaileak helburua garbi izan behar du.	Fikziozkoa: taldeak egoera hipotetiko batean irudikatu behar du bere burua eta egoerari erantzuteko lan egin behar du.

Hauek dira ikasketa kooperatiboaren oinarritzko osagaiak:

- 1. Elkarmenpeketasun positiboa.** Kide bakoitzak bestearekiko lotura du, baten arrakasta besteen arrakastak baldintzatzen du. Taldekide bakoitzak bi ardura ditu: ezagutzak ikastea eta taldekide oroko ikasi dituela ziurtatzea.
- 2. Aurrez aurreko elkarreragina.** Ezinbestekoa da taldekideen arteko elkarbizitza egotea: elkar laguntzeko, baliabideak partekatzeko, informazioa prozesatzeko, arrazoiak, erabakiak hartzeko, elkar animatzeko...
- 3. Banakako erantzukizuna.** Estrategiak, trebeziak eta ezagutzak taldean lantzen dituzte lehenengo, ondoren ikasitakoa bakarka aplikatzeko. Erantzukizuna hartzean, norberak bere jarduna taldeari eskaintzen dio.
- 4. Trebetasun sozialak lantzea.** Gaitasun interpersonalak lantzea ezinbestekoa da, trebatu egin behar dira, ezagutza akademikoak beste. Gatazka motak: akademikoak eta kideen artekoak.
- 5. Taldearen prozesatzea.** Taldeak egindako lanaren gaineko metakognizioa egin behar du. Taldearen eta elkarlanaren eraginkortasuna hobetzeko jarrerak eta ekintzak identifikatzeko eta aurrerantzean zeri erreparatuko dion zehazteko.

Ikasketa kooperatiboaren taldekatze eraginkorrenak heterogeneoak direla aditu guztiek baieztatzen dute. Hala ere, irakasleak definitzen duen helburuaren arabera, talde homogeneoak egitea interesgarria izan daiteke.

Ikasketa kooperatibo motak ondorengoak dira:

1. Formala.

- Ohiko lan kooperatiboa egiteko taldeak.
- Proiektu edo unitate bate, hiruileko bat edo ikasturte bat iraungo dute.
- Taldeko kohesioa eta talde pertenezkoa lantzea ezinbestekoa izango da.
- Trebetasun sozialak lantzeko planifikazioa egin behar da. Ikasturtekoa, ziklokoa, etapakoa edo ikastola aldi osokoa izan daiteke.
- Proiektu edo unitatea aurrez ondo aztertu eta planifikatzea eskatzen du.
- Teknika ezberdinak daude ikasketa kooperatibo formalean baliatzeko. Jarduerak edota irakasleak duen helburuaren arabera bata edo bestea erabiliko du.

2. Informala.

- Azalpen luze bat edo ikus-entzunezko baten lanketa egin behar denean baliatuko dugu.

- Talde txikiak dira: 2-3 pertsonakoak.
- Saio bat iraungo dute, gehienez bi.
- Normalean elkartzen ez diren ikasleak elkartzeko balio du.

4. Oinarritzko taldea.

- Helburu akademikoaz harago doa.
- Kideen ongizate orokorraren ardura du.
- Ikasturte osoan zehar mantentzekoa da.
- Taldekideen arteko kohesioa, ardura eta elkar laguntzea sustatzen du.
- Tutoreak, erreferenteak du talde hauen ardura.
- Astean zehar momentu ezberdinetan elkartzen da.
- Gelako zein gelaz kanpoko espazioak baliatzen ditu.

Talde koadernoan oinarritzko tresna da horietan lan egiteko, bereziki, formalaren kasuan. **Taldeko jarduna kohesionatzea, antolatzea, bideratzea, erregistratzea eta hobetzea du helburu.**

Talde koadernoak:

- Taldearen pertenezkoa, prozesatzea eta progresioaren ebidentziak jasotzeko balio dute.
- Taldearen lana planifikatzeko ere baliatu daitezke (ikasleen adina eta autonomia).

- Autoebaluazio eta koebaluaziorako erabilgarriak dira.
- Osagaiak:
 - Portada: taldearen izena eta logotipoa.
 - Taldeko helburuak: elkar laguntzea eta guztiok ikasketa prozesuan aurrera egitea.
 - Taldeko arauak: taldean adostu behar dira.
 - Rolak eta funtzioak.
 - Planifikazioa: adinaren eta autonomiaren arabera. Proiektuak ere baldintzatuko planifikazio propioak egiteko aukera.
 - Taldearen prozesatzea.
 - Autoebaluazioa eta koebaluazioa: errubrikak eta txantiloia.

Berrikastan jarraitzen dugu. Nahiz eta badirudien orain aplikatu dugula ikasketa kooperatiboa, beti izan da gure ikastolaren lan egiteko moduetako bat. Orain eguneratzen jarraitu dugu. Zergatik?

Trebezia sozialak landu egin behar direlako, kooperatzen ikasi egiten delako. Ikasleek beharra sentitu behar dute edo elkarlanaren onurak ezagutu eta bizi behar dituzte. **Taldeak kohesionatuta egon behar du.**

Etengabeko lana da, **bazatoz GUREkin?**

Maila ezberdinetako trebetasun sozialak			
Osaerakoak	Funtzionamenduzkoak	Formulaziozkoak	Sustapenekoak
-Zarata atera gabe mugitu. -Taldea mantendu. -Ahots-tonu baxua mantendu. -Txanda errespetatu. -Besteengana izenez zuzendu eta begietara begiratu.	-Ideiak eta iritziak partekatu. -Iritziak arrazoiatzea eskatu. -Taldearen lana bideratu. -Parte-hartzea sustatu. -Azalpenak eta laguntza eskatu. -Onarpena eta babesa adierazi. -Azalpenak eta argibideak eskaintzea. -Besteen baieztapenak parafraseatu. -Taldea animatu, motibatuz. -Sentimenduak deskribatu. -Laguntza eskaini.	-Ahots goran laburtu. -Zehaztasuna bilatu. -Landutako arrazoiak bilatu. -Besteek gogora dezaten lagundu. -Ulermena ziurtatu. -Kideei ahots goran planifikatzeko eskatu.	-Ideiak kritikatu pertsonak kritikatu gabe. -Taldekideen ideiak eta euren arrazoiaketa desberdindu. -Ideiak bakar batean integratu. -Azalpenak eskatu. -Erantzuna zabaldu. -Galdera sakonen bidez ziurtatu. -Erantzun gehigarriak sortu. -Taldearen lana kontuan izanda, errealitatea baloratu.

IKT GURASO ITUNA 2 DENBORALDIA

LEHEN MUGIKORRA NOIZ? AHALIK ETA BERANDUEN...

ITUNA:

**"HURRENGO 6 HILABETETAN GURE
SEMEARI / ALABARI EZ DIOGU
BEREA IZANGO DEN SAKELAKO
TELEFONORIK EMANGO"**

Sarrera

- 2023ko azaroaren 13tik 23ra bitartean, Haurtzaro Ikastolako gurasoei (LH3tik DBH2ra) itun batean parte hartzeko eskatu zitzaion. Bertan hurrengo 6 hilabeteetan etxeko txikiei berea izango den sakelakoa ez erosteko konpromisora atxikipena emateko aukera eman zitzaion.

Helburuak:

- Lehen sakelakoa/ smartphone-a ahalik eta beranduen jasotzea.
- Ikastolak/haurrek/gurasoek telefonoen arriskuak eta abantailak hobe ulertzeko denbora eta aukera izatea.

Zergatik?


- Lehen sakelakoa erostearen 1º arrazoi nagusia presio soziala da *"nire lagunek badute eta ni taldetik kanpo geratuko naiz..."*

Oharrak:

- Inori ez zaio azalpenik eskatu.
- nori ez zaio azalpenik zor.
- Parte-hartzea guztiz borondatezkoa izan da.


Neska seme alabaren eta gela

169 erantzuna




Seme/alaba-ren generoa

169 erantzuna



Ituna: "Hurrengo 6 hilabeteetan gure seme / alabari ez diogu berea izango den mugikorrik emango"

169 erantzuna



GALDERAK, GALDERAK... ETA GALDERA GEHIEGI

(Rominna Perez Toldi-ren artikulua *Infancia 201*, 2023ko urria)

Ulertzen ez den horrekiko erabakirik hartzerik ba al da? Ze eragin izan dezake haurraren gaitasuna eta ulermena gainditzeko duten kontuei buruz galdetu, eta erabakia haurraren esku uzteak? Eta erantzuteko denborarik uzten ez diogunean?

Gizakiak autonomiaz, autonomiarako gaitasunez eta autonomia hori garatzeko beharraz jaiotzen gara. Autonomia haurraren eta edozein pertsonaren funtsezko eskubidea da.

Judit Falkek dio (Lockzy fundazioaren formazio arduraduna) benetako autonomia dela norberaren arauen bidez gobernatzeko gaitasuna, bestearen askatasuna kaltetu gabe. Esan dezakegu, beraz, autonomia horrek zerikusia duela erabakiak hartzeko eta autogobernatzeko gaitasunarekin, baina autonomia arduratsua dela, bere ekintzen ondorioak ezagutzen dituen pertsona arduratsu batena.

Eszter Moszes psikologoak ere esaten digu haurraren konfiantza izatea dela haurra nahikoa ezagutzea honek zer egin dezaken eta zer ez jakiteko, eta ez, askotan uste izaten den bezala, edozer egiten uztea. Izan ere, bere ekintzen ondorioak baloratu ezin baditu, ez da benetako erabakia, ez da benetako autonomia. Baietz edo ezetz esateak zer ondorio dituen jakin gabe, ezin du modu egokian erabaki.

Benetako autonomia eguneroko egoera txikietan sortzen da, haurrak jokoan jar dezakeenean egin dezakeena, dakiena eta nahi duena. Hiru printzipio horiek ez badaude -ahal izatea, jakitea eta nahi izatea- ez da autonomia, sasi-autonomia edo autonomia faltsua da.

Judit Falk-ek dioenez, autonomia faltsuaren hiru tranpa handi daude:

- 1) Baldintzapena**, non haurrak helduak espero duena egiten duen, heldu horrek zer espero duen badakielako, baina kooperatu gabe eta inplikatu gabe.
- 2) Lehenbailehen** egitea hobe dela pentsatzearen uste okerra, eta ondorioz, haurraren heldutasun psikosoziala eta emozionala kontuan hartu gabe, dagokiona baino lehen gauzak exijitzea.
- 3) Egiten uzteko jarrera**. Jarera horretan, erantzukizun guztia uzten zaio haurrari, helduak "eutsi" gabe autorregulatuko delakoan, eta kasik magiaz, erabakirik onena hartuko duela pentsatuz.

Tranpa handi horiek ez dituzte haurraren benetako aukerak eta beharrak kontuan hartzen. Behar horien artean dago haurrak benetan ezagutzen duen heldua behar duela ondoan, ongi ezagutzen duen heldu horrek jakingo baitu zer eskatu ahal zaion eta zer ez, eta nola lagundu autonomia eta sozializazio prozesuan.

Autonomia faltsuaren hiru tranpa horiek dauden modu berean, hiru "galdera tranpati" identifikatu ditu artikulua egileak. Sasi-galdera horiek Judit Falkek aipatzen duen autonomia faltsu hori indartu besterik ez dute egiten, galdera mekanizatuak direlako, gutxi pentsatuak eta mamirik gabekoak.

- 1) Erantzun errealik espero ez duten galderak, eta beraz, ez dira zintzoak eta aurea hartzeko eufemismo gisa funtzionatzen dute: "Eskuak garbitu nahi dituzu?", "Bazkaltzeko eseri nahi duzu?", "Fardela aldatuko dugu?". Haurrak erabaki ezin badu, zergatik galdetzen diogu?**
- Haurrek erantzun ditzaketen galderak, baina helduak **ez dio nahiko denborarik ematen** erantzun ahal izateko eta modu batean ez du haien erantzunik espero. Hori horrela, ezin dute kooperatu, ezta erantzun ere. "Nahi al duzu besoetan hartzea?" (jada horretan ari garenean);

"moztuko dizut haragia txikiago?" (jada ari gara txikiago moztzen); "nahi duzu?"; "gustatzen zaizu?" eta ez diogu denborarik ematen ez galdera ulertzeko eta are gutxiago erantzuteko, eta gainera beste kontu baten hasten gara berehala.

- 3) Heldutasun edo ulermen gaitasun nahikorik ez duelako edo oso orokorrak** direlako, haurrak erantzun ezin dituen galderak. "Zer gosaldut nahi duzu?", "zertara jolastu nahi duzu?".

Zenbat aldiz galdetzen diegu haurrei mekanikoki, erantzunaren zain egon gabe edo erantzuteko zailak diren galderak eginez?

Autonomiak autogobernuarekin eta erabaki-ahalmenarekin zerikusia duela ulertzeak ez du esan nahi haurra autonomoagoa izango denik dena erabaki bidezake, ez baita erreala pentsatzea dena erabaki bidezakeela. Izan ere, ikasi eta erabaki arduratsuak hartu ahal izateko, bere erabaki eta ekintzen ondorioak ezagutu edo, gutxienez, onartu behar ditu.

Jarduera autonomorako gaitasuna posible da, erreferentziako helduekin atxikimendu segurua ezarri ahal izan duelako, konpetente sentitzen delako eta bere ekintza-proiektuak gauzatzeko gai delako. Helduak, heldu gisa, bere eginkizunaren ardura bere gain hartu behar du eta dagozkion erabakiak hartu, haurraren esku utzi gabe.

Beraz, ez dizut galdetuko pixoihala aldatzea nahi duzun. Heldu, hezitzaile eta profesional naizen aldetik, ziurtatu behar dut pixoihala aldatzeko baldintza egokienak bermatzea, eroso egon zaitezen, seguru eta balioetsia; parte hartu eta lankidetzan ari zaitezen, duin, errespetatua sentitu zaitezen eta konfiantzazko unea bizi dezazun.

Heldua haurrarekin benetako elkarriketa bat ezartzeko gai denean, hau da, pertsona gisa tratatzen duenean, arretaz entzuten duenean, erantzunei denbora ematen dienean, bere zeinu eta adierazpenei adi dagoenean, eta erabakitzeko eta ahal duena egiteko espazioa ematen dienean, orduan eraikitzen du umeak autonomia errealeko sentimendu sendoa eta, beraz, bere garapena ahalbidetuko diona.

DENA TXUKUN ETA GOXO

Atzo, 16:00etan bukatu nuen eguneko jarduna. Gelak txukuntzen hor zebiltzan garbitzaileak (guretzat izen-abizeneko lankideak, noski). Jada HUTSIK zeuden gelak garbitzen eta antolatzen ari ziren. Bai, haurrak eta hezitzaileok etxeratu ondorengo lanari ekiten eta, beraz, haur eta guraso gehienek begiradetatik kanpo. Ondorengo lerro hauetan beraz, **euren lanaren mimo guztiak iristen zaizkigula esan nahiko nieke eta eskerrak eman.**

Egunero bezala, lana bukatu ondoren, ustez gela txukun utzita etxerantz abiatu nintzen, garbitzaileak agurtu ondoren.

Gaur goizean, nire gelara sartzen lehena izan naiz. Txukun eta garbi antzeman dut. Usainez ere halaxe.

Atzo, etxerakoan, nire gelako koltxoi handiko izara eta marrazki desberdinetako 4 kuxinen zorroak garbitzera bota nituen. Baita panpinen txokoan, hurrek jolaserako erabili ohi duten mantatxo bat ere. Garbigailu gelan dugun saskian sartu nituen eta bertan nahasi ziren haur-eskolako beste hainbat oihalekin batera. Gaur ordea, hor ditut mahai gainean goxo tolestuta eta garbi usaina dariela. Norbaitek jakin du nire gelakoak zirela eta beste hainbat arropa zikinekin batera garbitu arren, euren tokira bueltatu dira.

Panpina txokoari begira jarri naiz; kontziente naiz ez dagoela nik atzo utzi bezala. Egurrezko sehaskan 3 panpina utzi nituen etzanda, lo zurrungan, biluzik eta mantatxo batekin tapatuta. Beste bi, berriz, ondoko saskian eta hauek ere etzanda. Interesez, euren begira ari naiz eta gau interesgarriagoa eta gozoagoa pasatu dutela dirudi. Sehaskan bi besterik ez ditut topatu. Toki gehiago izan dute lotarako. Tolestutako zapi batekin egindako buruki bat ere badute. Ez daude biluzik. Norbaitek mimo gehiagorekin zaindu ditu gaua goxo pasatu zezaten.

Beste hiru panpinak leihotik begira topatu ditut elkarren bueltan eserita, hizketaldi gozoan baleuden. Azpian, gantxilozko mantatxo bana dute eta gozo jantziak daude: buruan artilezko txapela eta buzua du batek eta zapiekin egindako jantzi dotore eta originala, besteek. Inguruan dituzten beste hainbat material ere ez daude nola hala, oharkabea jarriak, ez horixe. Hortxe beraz, gure txikiei mimo egindako proposamenak garbitzaileen eskutik. Gaur nik ere izan dut zer ikasia.

Eskerrik asko!

ESKERIK ASKO!



HATZAK BETE LAN

HH3

ESPERIMENTAZIO JOLASA

Esperimentazio jolasekin haurrak objektuen ezaugarrien inguruko informazioa bereganatzen du: objektuen ezaugarriak, testurak, pisua, forma, neurria, soinua... Jolas honetan, manipulazioa, ingurunearekiko esplorazioa, ikerketa eta saiakera errepikatuak ematen dira.

Haurra, erreferentziatzko helduaren begiradaren laguntzarekin, bere ikasketa prozesuaren arduraduna da. Libreki miatuz eta manipulaturaz erantzunak lortzen ditu (objektu hau nolakoa da? Objektu honek zertarako balio du?). Beraz, esplorazio librearen bidez ikasten du. Gainera, norberaren interesak eta jakin-minak bultzatutako jarduera izanda, behaketa eta arreta gaitasuna hobetzen dira.



HH4

JOLAS SINBOLIKOA

Jolas sinbolikoak haurrari bere testuinguruko bizipenak irudikatzeko balio dio. Norbere burua ezagutzeko, autoestimua garatzeko, adiskidetasuna lantzeko eta jokabide asertiboak edukitzen lagunduko dio.

Haurrak, jolas sinbolikoaren bidez bere eguneroko errealitateko egoerak simulatzen ditu bere barne mundua proiektatuz: bere beldurrak, kezak, bete ezin dituen desirak, familian sortzen diren gatazkak... Era berean, gorpuzteko zein hitzeko komunikazioa eta sozializazioa garatzeko bitarteko aparta da. Izan ere, modu naturalean sortzen dira haurren arteko elkarriketak, negoziazioak eta rol banaketak. Aldi sinbolikoan, haurrak elkarrekintzan aritzen direnez, elkarbizitza sozialerako oinarriak ere ezartzen doaz.



HH5
TALDE JOLASA

Jolas sinbolikoan hurrek sortzen dituzten kontakizunek gero eta zehaztasun handiagoa dute. Era berean, jolaserako espazioaren eta objektuen antolaketak ere, gero eta konplexutasun handiagoa hartzen du. Haurren arteko elkarlana gero eta beharrezkoagoa bihurtzen da jolasak garapen bat izan dezan. Horren ondorioz, elkarren arteko kolaborazioa ere beharrezkoa izaten da kontakizun-proiektu txikiak aurrera atera ahal izateko. Testuinguru horretan haurren arteko lehia ere agertzen da: *Ni izango naiz barku honetako kapitaina*. Eta beste batek ondotik: *Ez! Ni izango naiz kapitaina!* Lehia ematen denean, erreferentziazko helduaren laguntza behar izaten dute arauak adosteko. Arau adoste horiek izango dira aurrekari, ondoren emango diren arau jolasetan trebatzeko. Jolas arautua, arau eta harreman sozialetan oinarritzen da. Horretarako, beharrezkoa da haurrak gaitasun sozial batzuk garatzea: kooperazioa, arauak eta txandak errespetatzea.



LH1

ISASA ETA MARGOSORO
EZAGUTU DITUGU

Kaixo lagunak:

LH1era etorri gara eta guretzat guztia da berria. Ostegunero mailako ekintzetarako tarte izaten dugu eta, tarte horietan, gure familiakoei guregana etortzeko eta beraientzat garrantzitsua den zerbait aurkezteko gonbita egin diegu.

Joxe Mari Isasak (Aretzen aitona) Margosorora gonbidatu gintuen, bere lantegira. Zenbat artelan dituen han! Artelan horiek egiteko erabiltzen dituen teknikak aurkeztu zizkigun eta, guri ere frogatzeko aukera eman zigunez, artelanak egitera ausartu ginen, pastela, ikatza eta akuarela erabiliz.

Guretzat ordura arte Aretzen aitona zena, artista handi bat dela ohartu gara.

Eskerrik asko, Joxe Mari eta Maite, aukera hau emateagatik!



LH2

PAISAIK ETA POP ART

Naturari begira, paisaiak ageri dira, artelan txundigarrien neurria...

Ongi etorri paisaia aniztasuna duen herrira... Euskal Herrira!
Ikasturte hasieran Oianlekun egon ginen egunpasa. Bertako pago liluragarriak behatu eta mairu-baratzearen magiaz sorginduta egin genuen basotik herrirako bidea.

Ondoren, Donostiako Santa Klara uharteko ekosistema berezi eta bakarraz gozatu genuen. Ba al zenekien, munduan, Donostiako uhartean bakarrik dagoen sugandila mota bat dagoela?

Azkenik, itsasoko paisaia utzi eta baserria eta honen ingurua bisitatu genuen. Baserriaren paisaian egon daitezken animaliak eta baserriko animaliak bereizteko balio izan zigun, besteak beste.

Paisaia ezberdin hauek txundituta, konpetentzia artistiko bidez isdatu nahi izan genuen sentitu eta bizitutakoa.

Horretarako, Pop Art mugimenduko artisten lanak hartu genituen bidelagun: Warhol, Yayoi Kusama, Roy Lichenstein eta Nikki de Saint Phalle.

Begira eta gozatu!



Lichenstein



Warhol



Basoia



Itsasoia



Yayoi Kusama



Saint Phalle



Baserria

LH3

TRADIZIOAK/TRAIZIOAK

Onintza Etxebeste Liras herriko sortzaileari ideia hartu eta Yayoi Kusama artista japoniarraren obran inspiratuta, Oartzungo hainbat txokoetako argazki zaharrak berrinterpretatu ditugu plastikako saioetan.



Agustín Ibarrola

HAURTZAROMAKO BASOA

Omarko basoa bisitatzea zen gure hasierako asmoa, baina ezinezkoa suertatu zitzaigun. Eta, orduan zer? Ba, basora joan ezin genuenez, basoa guk geuk sortzea erabaki genuen! Horixe Ibarrolari gure omenaldi xumea.



Onintza Etxebeste



Yayoi Kusama

LH4

IZAN GAITEZEN
ARDURATSUAK

Arduratsuagoak izan beharko genuke kontsumitzen dugun janariarekin. Izan ere, kezkarriak dira nazioarteko hainbat elkarte emandako datuak.

Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundeak (FAO) emandako datuen arabera, gizakiok jateko ekoizten diren elikagaien herena bota egiten dugu edo galdu egiten da.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Kooperatiben Espainiako Konfederazioak dioenez, etxe bakoitzean 80 kilo elikagai joaten dira zaborretara urtean.

Zer egin dezakegu honen aurrean?

LH4. mailakook argi dugu!

1go unitatea bukatu dugu aste hauetan eta, amaiara fasean, komunikazio kanpaina egitea adostu dugu.

Ikusi al dituzue gure mezuak herrian zehar?

Bada, lanean aritu gara komikiak, horma-irudiak, informazio txartelak eta ahots mezuak prestatzen.

Zer egin daiteke elikagai gutxiago botatzeko?

Hona hemen aholku batzuk:

- Janaria hozkailuan sartu ahalik eta denbora luzeen kontserbatzeko. Lizuna ateratzea ekidin beharra dugu!
- Soberan ditugun garaiko jakiekin kontserbak presta ditzakegu: marmelada, konpota, hegaluzea, tomatea...
- Erosketa egin aurretik zerrenda prestatu. Horrela, behar duguna soilik erosiko dugu.

Denon artean lortuko dugu!



Hemen bideoren esteka:
<https://youtu.be/LhIS2sA5P-E>



LH5

BERTSOLARI GALANTAK

Aurten, euskara arloan, 5. mailakook bertsolaritza lantzen hasi gara, tutorearen eta Ander Lizarralde bertsolariaren laguntzaz. Saio hauetan, *Maritxu nora* zoaz doinuarekin geletako bertsoak asmatu genituen. Hortik aurrera, Ikusi nuenean doinua ikasi eta, binaka, bat-bateko koplak asmatzen ditugu etengabe: gure izenak oin gisa erabiliz gure arteko elkarriketak sortuz, animaliak eta beraien ezaugarriak aipatuz... Primeran pasatzen dugu eta Ander etortzeko irrikan egoten gara!

Hementxe dituzue ikasturte hasieran sortu genituen geletako koplak. Ea zuek ere guk bezainbeste gozatzen duzuen!



5A

Bihurriak gara gu azkarrak ere bai jolasgaraian denok gaude beti alai. Musikara igotzen gara beti lasai despistatuak gara galtzen gara nonahi.

5B

Talde bat gara denok poz-pozik gaude gu eta gela honetan lagunak dauzkagu. Bazkaltzeko orduan kilo bat agindu ingeleseko garaian bururik ez dugu.

5C

Jatorrak gara gu ta laguntasunean murgildu izan gara behar dugunean. Euskara eraman dugu gure bihotzean bertso asko prestatu ta bota airean.



Hemen bideoren esteka:
<https://youtu.be/hGFO1gmRadw>

06. HATZAK BETE LAN



LH6
BERTSOLARITZAN
BARRENA

Kaixo, Txinpartkide!

Urtero legez, **bertsoen munduan murgildu gara** lehenengo unitate honetan. Hainbat ekintza egin ditugu:

1. Oiartzungo bertsolariak ezagutu ditugu
2. Bertso emanaldia antolatu dugu.
3. Erreferentziatzko bertsoak ikasi ditugu.

Hori guztia **herri curriculum**a kontuan izanik landu dugu eta **Oiartzungo bertsolariak ezagutuz** eta taldeka beraien informazioa jasoz eta aurkeztuz. Uste genuena baino bertsolari gehiago eman ditu gure herriak eta gu ere bertsolari paperean jarri gara. Horretarako, gela bakoitzak **bere bertso emanaldia eskaini die 4. mailako kideei**: aurkezleak, gai-jartzaileak, bertsolariak... denetik izan dute gure ikuskizunek!

Emanaldi horietan gure herriko ondare diren bertso batzuk ere ikasi eta kantatu ditugu elkarrekin: **Kazkazuriren Nire sentimendua** bertso-sorta. Gainera, Kazkazuriren jaiotetxea,



Zurko, bisitatu dugu eta bere ohorez bertsoak bertan abestu ditugu. Kasualitateak kasualitate, gaur egun baserri horretantxe bizi dira gure bi mailakide: Aiala eta Iraide.

Ikus ezazue zein bideo politean bildu dugun bertsolaritzan barrena egindako ibilbidea!



Bideoa:
<https://youtu.be/PG-NYLw7NR8>

DBH1
FRANTSESA
ERRAZ IKASTEKO

DBH1en frantsesa modu errazean eta atseginean ezagutzeko kartelak sortu ditugu, jendeak hizkuntza hori ikas dezan.

Talde txikitan egindako horma-irudiak dira argazkikoak, eta bertan frantsesera hurbiltzeko arrazoiak eta estrategiak txertatu ditugu.

Ezer gutxi jakin gabe guk lortu dugu, orain zuen txanda da. Anima zaitetzte!

TALENTU
MUSIKALAK

DBH1. mailako ikasleek haien talentu musikalak partekatu dituzte gainerako ikaskideekin ingeleseko *We've got talent!* unitatean instrumentu, musika mota eta talde ezberdinak landu ostean.

Ederki aritu dira gure musikariak! The biggest yes for you!



DBH2

DBH 2. mailakoek, beste mailetan bezala, Xabier Lete Prosa eta Poesia Lehiaketan hartu dute parte. Poesia sailean, beren borondatez animatzen dira, eta aurten, lan asko aurkeztu dituzte. Hemen irabazletako baten lana, DBH2B gelako **June Del Teso** ikaslearen **Ezer gabe hobe**.

Ezer gabe hobe

*Itsasoa zakar dago,
itsasoaren erdian geratu naizelako.*

*Txoriak zuhaitzetik joan dira,
haren itzalean eseri naizelako.*

*Liburuari hizkiak desagertzen ari zaizkio,
liburuaren azala gustatu,
eta liburua ireki dudalako.*

*Eta hori guztia zergatik?
Nire azal kolorea besteena bezalakoa ez delako.*

*Itsasoa, txoriak eta liburua bezain arraroak dira,
nire hemengo "lagunak".*

*Eta zergatik?
Beraien azal kolore bera ez dudalako.*

*Amets egiten dut, itsasoa, txoriak eta liburuak
nire lagun izatea.*

Baina bizia daukan inork ez du nirekin egon nahi.

*Itsaso zakarra zeharkatu dut,
herri honetara iristeko,
bizitza hobearen bila etorri bainitzen,
baina ez da hala izan,
hori nire amaren ametsa bakarrik zen.*

*Bidaia luzea egin dut,
txoriek bezala,
itsasoa zeharkatu iristeko hona.
Azkenean, iritsi naiz, urik gabe, janaririk gabe,
eta ezer gabe bizi nintzen herrira.*

*Nire herrian ez zegoen itsasorik,
ez txoririk, ez libururik...
Ez nuen bertakoek ni ikustean
pentsatzen zutenaz kezkatu beha,
liburuen azalen eran.*

*Familia eta lagunak nituen.
Ez nuen gehiago nahi, ez nuen gehiago behar.*

June del Teso Olaizola



DBH3


LABORATEGIAN ZIENTZIAREKIN JOLASTEN

Ikasturte honetan ere, DBH3. mailako ikasleek zientzia arloetan laborategira maiz joateko aukera eduki dute, **zientziarekin jolasten** egitasmoaren barruan. DBH3ko curriculumak Biologia-Geologia eta Fisika-Kimika arloak bereizten dituenenez, ikasleei aukera bikoitza suertatu zaie.

Biologian, bizidunen oinarritzko egitura osatzen dituzten zelulak nolakoak diren aurkitzeko animalia eta landare ehunekin behatzeko prozedura zuzenak jarraituz aritu ziren.

Bestalde, fisika kimika arloan, gasen portaera eta propietateak aztertzeko, aldaketa fisikoak eta kimikoak bereizteko, erreakzio kimiko ezberdinak eragiten eta errekontzak aztertzen aritu ziren.

Hautzaro Ikastolak jakin badaki **indagazioaren** garrantzia zein den eta berau lantzen jarraituko dugu ikasleek ekintzailetasuna, kuriositatea eta metodo zientifikoaren urratsak sendotzeko.



DBH4

KULTURA KLASIKOA EZAGUTZEN

DBH4ko Latineko ikasleak gara gu. Hiruhileko honetan, Kultura Klasikoa landu dugu, hau da, Antzinako Greziako eta Erromako kultura.

Unitatea hiru zatitan banatuta dago: Geografia, Historia eta Artea. Unitateko edukiak landu ondoren, amaierako proiektuekin hasi ginen. Horretarako, bikoteka jarri ginen, eta bikote bakoitzak gai bat aukeratu zuen gelaren aurrean aurkezteko. Gaiak honako hauek izan ziren: Erromako historia, Greziako historia, Erromako artea eta Greziako artea.

Logikoki, ez genuen gai osoa aurkeztu. Gai bakoitzetik istorio txiki bat aukeratu genuen aurkezteko. Aukeratutako gai honekin, lan idatzi bat eta aurkezpen bat prestatu genituen, ondoren gelaren aurrean aurkezteko. Hementxe gure aurkezpenen bi adibide.

Gozatu!



Ikusi bideoa hemen:
<https://youtu.be/lbu8gvWbvNM>



Ikusi bideoa hemen:
<https://youtu.be/qQyJT8ELnk8>



SAN NIKOLAS



SAN TOMAS



ABENDUAK 24





TALDE BERDEA

Gogoz lanean

Indarbertututa etorri zaigu aurtengo ikasturtean Talde Berdea. Talde horrek, Eskolako Agenda 2030 ekimenaren barruan hartutako konpromisoak artxan jartzen ditu hartutako eta jarraipena egiten die. Betetzen ditugula bermatzeko "ikuskari" lana egiten du.

Gure planetaren egoera ekologikoaz jakitun da, eta berau hobetzeko ekintzak burutzerakoan sortzen zaizkigun kontraesanez kontziente egin eta ekintza eredugarriak sendotzen jarraitu nahi du.

Urtero gai bat lantzen du, Eskolako Agenda 2030 helburuetatik. Urtetan heldutako erronkari eutsiz aurtun, Garapen Iraunkorraren 7. helburuaren lanketarekin jarraituko du bigarren ikasturtez: *Energia eskuragarria eta ez kutsatzailea delakoa, Energia, gure motorra lelopean lantzen ari direna.*

Iaz, sentsibilizazioa eta diagnostikoa izan ziren emandako pausoak. Aurtun, ekintza plana; martxan jartzea, alegia.

Udalari hainbat eskaera egin dizkiote gure ikasleek, eta horrekin batera, 10 konpromiso hartu dituzte. Hauxe da energiako konpromisoen dekalogoia:

TERMOMETROAK GELETAN

9. konpromisoa lantzen hasi dira ikasturte honetan ikastolan, lehenengo: berogailuak behar denean bakarrik erabiltzea.

Hori bermatzeko, termometro bana banatu dute geletan. Bertan, non jarri erabaki dute eta tenperatura bat adostu. Tenperatura horretara iristen denean, ordezkarri batek irakaslea abisatzen du eta berogailua ixten dute.

Helburua da, ikasleek etxeetako termostato lana egitea.

Orain arte ederki funtzionatu du ideiak. Aurrerantzean, gainerako konpromisoekin jarraituko dute lanean, 10ak betetzera iritsi arte.



LABURRAK




DBH3. Mailakoak, Durangoko Azokan

Ohitura onak ez direla galdu behar eta, aurten, hirugarren aldiz, Haurtzaro Ikastolako ikasleek Durangoko Azoka bisitatu dute.

2021ean, lehen aldiz, DBH4. mailakoak izan ziren joan zirenak. Iaz eta aurten, berriz, DBH3koen txanda izan da. Abenduaren 7an, osteguna, izan ziren han.

Azoka bisitatzeaz gain, artistekin egoteko tarteak izan zuten, gure kide den Xabi Solano musikariarekin esaterako. Ederki gozatu zuten.

Berria egunkarian, elkarrizketatu egin zituzten, gainera: **Ioritz Lizaso, Adur Etxeberria, Oihan Etxebeste, Aitor Aizpurua eta Alex Zuriarrain** oiartzuarrak Haurtzaro Ikastolako (Gipuzkoa) ikaskideekin heldu ziren Durangora, baina ez zuten inongo tailerretan eman izena. Beren kasa ibiltzeko utzi zizkieten bi orduak Azokako kaleetan gora eta behera eman zituzten, gustuko produktuen bila. Manga bana eskuetan zutela, Landakoko bazter batean dauden eskaileretan eseri,



Iturria: Berria egunkarian argitaratutako [Gazteena ere bada Durango](#) artikulua, Garbiñe Ubedaren eskutik.

eta irakurtzen aritu ziren, ordu erdiz edo. *Cube Arts, Dinosaurs Sanctuary eta Heroines Game* sailetak aleren bat edo bi zeraman bakoitzak.

Haien hitzetan, «euskaraz natural, erraz eta gustura irakurtzeko moduan» daude itzulita, eta salneurria «aski egokia» dutela gaineratu zuten. Manga ale bakoitza 10 euroan jarri du salgai Harriet argitaletxeak, eta, horko editore Mikel Muroren hitzetan, tirada handiko erdarazko aleak baino apur bat garestixeago izanagatik ere, «aldea txikia eta onargarria» da.

Aipaturiko manga ale horiez gain, diskoak ere erosi zituzten: ETSren *Aukera berriak*, Glaukomaren *Kalima*, Faborez bildumako CDak eta Su Ta Gar taldearen *Jaiotze basatia* biniloa.



DIPC Donostia International Physics Center

Nobel Sariekin solasean...

Urriaren 6an, Zientzia-Nobel saridunekin solasean aritzeko aukera paregabea izan zuten Haurtzaro Ikastolako **Uxue Arozena, Nara Susperregi eta Ekain Torko DBH4. mailako ikasleek.**

Pedro Miguel Etxenike euskal fisikari erreferenteak gidatutako eta Donostia International Physics Center-ek (DIPCek) antolatutako *Passion for Knowledge* jaialdiko ekitaldietako batean izan ziren, Victoria Eugenia Antzokian.

Oiartzuar ikasleek **Maria Vallet Regí** (biomaterialetan aditua), **Jean-Marie Lehn** (Kimika Supramolekularrean Nobel Saria) eta **Jack Szostak** (Zahartzea eta Bizitza Artifizialean aditua eta Medikuntza Nobel Saria) ikertzaileei zuzen zuzenean ikerketa-galdera bana egin zizkieten eta beraien erantzunez gozatu zuten.

Ramon Gorrotxategi irakasleak lagundu zien.

Urteroko ohiturari jarraiki, Oiartzo Ikastolako Eguberriko Topaketa egin dugu aurten ere

lazko ikasturtean batxilergoa bukatu zuten 105 ikasleei ekitaldi xumea eskaini zieten

Ikasleak, haien familiak, irakasleak, Orereta eta Haurtzaro ikastoletako ordezkariak, eta Oiartzun eta Orereta-Erreenteriako udaletakoak izan ziren bertan.



Oiartzo batxilergo ikastolako 2023ko Eguberriko Topaketa egin zen abenduaren 23an, larunbata goizez, Oiartzungo udaletxeko pleno aretoan. Oiartzo Oiartzungo Haurtzaro eta Orereta-Erreenteriako Orereta Ikastolen batxilergo ikastola izanik, bi herrietan txandaka egiten da Eguberriko Topaketa; 2023an, Oiartzunen tokatu zen. Ikasleak, haien familiak, irakasleak, Orereta eta Haurtzaro ikastoletako ordezkariak, eta Oiartzun eta Orereta-Erreenteriako udaletakoak izan ziren bertan.

Ikasleak beraiek aritu ziren ekitaldiaren aurkezle eta gidari lanetan. Oiartzo Ikastolako zuzendariari eta lehendakariari eman zieten hitza, lehenik. Olatz Mitxelenak (zuzendaria) eta Maider Gezalak

(lehendakaria) iaz ikasketak bukatu zituzten ikasleei zorianak eman, etorriko direnei ongietorria egin, irakasle eta langile taldea eskertu eta ikastolaren etorkizuneko erronkak aipatu zituzten. Iaz arte Oiartzo Ikastolako zuzendaria izan zen Gaskon Etxeberriak ere izan zuen tarte hitzorduan. Ekitaldira bertara etortzeko aukerarik izan ez bazuen ere, bideoz jaso zituzten ikasleek "beren" batxilergo-garaiko zuzendari izan denaren hitzak.

Jarraian, erretiroa hartzera doan Jone Gallastegi Zapiraini omenaldi txiki xumea egin zioten, egindako ibilbide eta lanagatik eskerrak emanez. Ohiturari jarraiki, ikasleen ikuskizunak eta hitzartzeak ere izan ziren ekitaldian. Diploma-banaketa, taldeko argazki, aurreku eta elkarrekin berriketan aritzeko osteko mokadurekin amaitu zen Oiartzo Ikastolako 2023ko Eguberriko Topaketa.



SARITUAK

Prosa eta Poesia



PROSA

1. SAILA			
SARIA	Urtebetetzeak buelta eman du	Pelotari gaztea	Hur Lasa Alkorta
SARIA	Gabonetako historia	Laguna	Laida Goya Berroeta
AIPAMEN BEREZIA	Gabonetako arazoa	Aiako Harria	Mattin Zalakain Gonzalez
2. SAILA			
SARIA	Gabon magikoak	Naroa	Garoa Zabala Artola
SARIA	Lagunak	Untxia	Laura Lujanbio Martiarena
AIPAMEN BEREZIA	Nolakoa da hiltzea	Rule	Elur Ziaurritz Olaziregi
AIPAMEN BEREZIA	Sagarraren dimentsioa	Larra	Larraitz Maritxalar Lekuona
3. SAILA			
SARIA	Liburu magikoa	Larrea	Xuhar Larretxea Muxika
SARIA	Beranduegi da	Epalea	Jare Ziaurritz Olaziregi
4. SAILA			
SARIA	Amonaren urrezko sinadura	Urmael	Aiora Zaldúa Elizetxea
5. SAILA			
SARIA	Mariñela	Garapena	Ane Lekuona Arregi
SARIA	Giltzapean	Hotzikara	Kattalin Arabolaza Palomo

POESIA

3. SAILA			
SARIA	Bizitza	Lagun txuri-urdina	Iñaki Lasa Guimon
AIPAMEN BEREZIA	Poesia	Txikilikuatre	Alatz Nazabal Olasagasti
4. SAILA			
SARIA	Ezer gabe hobe	Itsaso	June Del Teso Olaizola
SARIA	Zer da bizitza?	Erdi Aroa	Aroa Arbide Zalacain
5. SAILA			
SARIA	Bizi garen bitartean	Laika	Irati Gaztelumendi Yarzabal
SARIA	Ezagutu ginen eguna	Izar uxo	Lur Iarrañaga Arretxe
AIPAMEN BEREZIA	Orri zuri-zuria	Kresala	Lorea Arruabarrena Destribats
6. SAILA			
SARIA	Ezin dut	Korapiloak	Malen Etxebeste Lekuona
SARIA	Loratu	Taxux	Maren Aginaga Bote

Aisialdi eskaintza euskalduna

GU IKASTOLAK! GU, HAURTZARO IKASTOLA!
Euskaratik eta euskaraz bizi dugun proiektua.
Aisialdi hezitzaile EUSKALDUNA duen proiektu integrala.

Haurtzaro Ikastolako ikasleentzat aisialdi eskaintza zabala izaten ahalegintzen gara ikasturtero eta, aurten ere, halaxe egiten saiatu gara. Parte-hartzea ikusita, bide onean goazela esan genezake.

Euskal kultura sustatzen dugu, bai ikasgelan, baita aisialdian ere. Eskutik helduta baitoaz eremu kurrikularra eta ez kurrikularra.

Eskaintza zabala dela esan dugu aurretik eta halaxe da: euskal dantzak, bertsolaritza, eskulanak, dantza modernoa, antzerkia, trikitia, panderoa, gitarra, zirkua, xakea, Sorgin eta Aztien Heltzea, Eskola Kirola, atletismoa, mekanografia, robotika, musika.

Euskal kulturarekin lotutako ekintzak, kulturarekin lotutakoak, teknologia berriei eta gaitasunekin lotutakoak. Hauxe da Haurtzaro Ikastolako aisialdi eskaintza.

460 ikasle dabilta beraien aisialdian ikastolak antolatutako ekintzetan parte hartzen, ikasten, gaitasunez, jakintzaz eta balio ezberdinez beren burua janzten.



Euskal kultura sustatzen dugu, bai ikasgelan, baita aisialdian ere. Eskutik helduta baitoaz eremu kurrikularra eta ez kurrikularra.

Herrian ere bai

Ikastolak herritik sortuak dira eta herriari ere ematen diogu eta, horregatik, herrian antolatzen diren jai, ospakizun, dinamika... ezberdinetan hor egoten saiatzen gara ahal dugun guztietan. Euskaraldian, Euskararen Egunean, Txerri Egunean, Ihoteetan, auzoetako jaietan, Xanistebanetan eta bidean suerta daitezken bestelakoetan ere bai.

Oraingoan, EUSKARAREN EGUNA hartuko dugu ardatz. Ikastolako bertso eskolako ikasleekin eta dantza modernoko ikasleekin parte hartu genuen. Euskaraz dantzatu, abestu eta ondo pasatu daitekeela erakutsi ziguten, beste behin, abenduaren 2an Oiartzungo plazan.

LH1. eta LH2. mailako ikasleek ZETAKen AKELARRETAN abestiarekin sortu zuten dantza, eta hauxe bertsolarien aurkezpen bertsoa, Kattinen eta Telmoren eskutik.

*Eskuttunek jarri du
Pankarta paretan
Euskal konpromezuak
Jartzeko gaur bertan.
Gozatuko dugu ta
Guk suaren bueltan
Dantza egingo dugu
Guk Akelarretan.*

LH3. eta LH4. mailako ikasleek DUPLA taldearen DANTZA GAUA abestiarekin sortu zuten dantzak eta hauxe bertsolarien aurkezpena, Martxelen eta Alainen eskutik.

*Talde honen izena
Dupla lehenbiziko
Zuen seme alabek
Dantza egiteko.
Dantza hau da denontzat
Zahar ta gazteentzako
Ta orain dantza gaua
Dator zuentzako.*

LH5. eta LH6. mailakoak Fane eta Eliren KAPOEIRA abestia aukeratu zuten eta dantza sortu. Hauxe bertsolarien aurkezpena, Xuharren eta Iraitzen eskutik.

*Euskararen eguna
Duzue begira
Eta horrelakoak
Oraindik behar dira
Dantza egitea bada
Zuentzat desira
O(r)ain e(d)ukiko zute
Zuekin kapoeira.*

Eskerrik asko hezitzaileei

Bistan da, ekintza guztietako hezitzaileek lan bikaina egiten dutela.

Oraingoan, Ixiar Oria, Eneritz Hernandez eta Ander Lizarralde aipatuko ditugu. Hiruhileko eskasean, zer nolako lana. Bikainak zarete! Beste hezitzaile guztiak bezala, noski.

Eta bertsolarien azken agurrarekin, Iñakiren eta Unaieen eskutik, ESKERRAK ematen jarraitzea besterik ez zaigu geratzen, Haurtzaro Ikastolan aisialdian parte hartzen duzuen ikasle eta familia guztiei eta hezitzaileei, egiten duzuen lanagatik.

*Euskarari guk egin
Diogu mesede
Emanaldi hobeak
Akaso badaude
Ahal duguna egin dugu
Ederra halare
Hau izan da den ata
Mila esker jende.*

**Euskaraz dantzatu, jolastu, kirola egin, abestu, amestu, ikasi eta bizi nahi dugu!
Gora Euskara!**



Ikusi bideoa hemen:
https://www.youtube.com/watch?v=KyipzweK_Ng



Ixiar Oria eta Eneritz Hernandez

OIARTZO

Zilibito Records

“Genero asko euskaraz egin daitezkeela erakustea da gure desira”



Hautzaro Ikastolan zeudela podcast-ak egiteko asmotik hasi, musika irakasgaiko erronka bati erantzuteko lehen abestia sortu eta Oiartzoko ikasle direla Gaztea Maketa Lehiaketa irabazi. Horratx Zilibito Records musika taldearen historiaren hasiera... (hasi besterik ez baitira egin gazte hauek!)

Zer da Zilibito Records?

Oiartzungo lagun talde batetik ateratako kolektibo bat da. Zortzi kide gara: Xabier Bergaretxe, Ekain Telletxea, Jurgi Arbelaitz, Ander Goenaga, Eñaut Arbelaitz, Manex Mitxelena, Aner Orbegozo eta Mattin Mata. Horietatik seik abestiak egiten ditugu eta beste biak ekoizpenean aritzen dira. Gure ekoizleek egiten dituzten produkzioek musika-genero jakin bati ez lotzea ahalbidetzen digute. Hortaz, musika genero ezberdinak lantzen ditugu. Malgutasun hori da gure taldearen ezaugarrietako bat.

Nola eta noiz sortu zen taldea osatzeko ideia?

Hasiera batean, podcast bat egin nahi genuen gure gauzez hitz egiteko. Asmoa taldearen izena Zilibito Podcast izatea zen. Garai hartan, gu DBH4. mailan geundenean, podcast-ak moda-moda jarri ziren. Hortik hartu genuen ideia. Baina, kkastolako proiektu batetik abiatuta, Eñautek abesti bat egin zuen eta horrek gure ideia guztiz aldatu zuen: ez ginen soilik podcast-etan zentratuko, musika ere egin nahi genuen. Horrela, taldearen izena, ideia eta proiektua aldatu ziren: Zilibito Records. Grabaketak, podcast-ak, abestiak... egiteko aukera izango genuen.

10. OIARTZO



Beraz, ikastolak nolabait lagundu du zuen zaletasunean, ezta?

Bai. Esan bezala, musika irakasgaitik sortutako erronka bati erantzuteko ekoiztu zuen Eñautek abestia eta horrek, nolabait, taldea osatzeko indarra eman zigun.

Zein mezu zabaldu nahi duzue zuen musikarekin?

Euskara ardatz izanik, musika euskaraz egin daitekeela erakutsi nahi dugu. Gaur egun oraindik euskarak presentziarik ez duen genero asko euskaraz egin daitezkeela erakustea da gure desira.

Taldekide gehienak batxilergoko 2. mailako ikasleak zarete. Maila horretako ikasketek eskatzen duten denbora eta dedikazioa handia da. Nola kudeatzen dituzue ikasketak eta musika?

Lehenengo ebaluazioa pasatu berri dugu eta zaila izan da. Lan zama handia izan dugu, estresa... Ez ditugu klase orduak soilik galdu, gure aisialdiko edota eskolaz kanpoko ekintzetako orduak ere xahutu ditugu. Zaila da denean erritmo altua mantentzen.

Zer eskaintzen dizue musikak pertsona gisa?

Guretzako musika (eta taldea, noski) eguneroko lanetik eta estresetik ateratzeko modua da. Ez hori bakarrik: lagunekin egoteko aukera ere bada, baita musika munduko jende gehiago ezagutzeko aukerak ematen dizkiguna ere.

Nola animatu zineten Gaztea Maketa Lehiaketan parte hartzera? Irabaztea espero zenuten?

Ez, ez genuen espero. Azken egunean apuntatu ginen! Gaztea Maketa Lehiaketak hiru fase ditu. Lehenengoan, 40 maketa jasotzen dira eta hortik publikoak bozkatu eta epaileek aukeratutako 20 pasatzen dira bigarren fasera. Guk bagenekien publikoak ez gintuela bozkatuko, baina epaileek aukeratu izana... poz handia izan zen! Horrela iritsi ginen finalera. Finalista guztien artean gazteenak izanagatik, irabazteko edo galtzeko aukera berberekin ikusten genuen geure burua. Eta horratx, hala bihurtu gara lehiaketa horren irabazlerik gazteenak!

Nola aukeratu zenuten lehiaketarako zuen abestia? Zergatik aukeratu zenuten hori?

Taldekide bakoitzak bere abestiak ditu. Kasu honetan, nahiz eta abesti hobeagoak izan baditugun, taldekide gehienek parte hartzen dugun abestiaren aldeko apustua egin genuen. Hori izan zen abestia aukeratzeko arrazoi nagusia. Horrez gain, ikustaldi gehien dituen abestia ere bada hautatu genuena. Bi arrazoi horienatik aukeratu genuen Berriz kantua 2023ko Gaztea Maketa Lehiaketarako.

Zein erronka berri dituzue buruan?

Album berri bat dugu buruan, entsegu eta prestaketetarako lokala eraberritzen ari gara. Gaztea Maketa Lehiaketa irabazi izanak hegala eman dizkigu!

ikastola zu?



ikastolenelkartea





Haurtzaro Ikastola
bizitzarako hezkuntza

Informa zaitez gure webgunean
www.haurtzaroikastola.eus

Elorrendo, z/g – 20180 – Oiartzun
Tel. 943491659 / haurtzaro@ikastola.eus



Etxean bezala

Matrikulazio epea
Otsailaren 7tik 23ra

Aurkezpen bilera
Urtarrilak 31, asteazkena, 17:00etan, Urmendin.

Ate irekiak
Urtarrilak 26, ostirala: 10:30ean eta 15:00etan.
Urtarrilak 27, larunbata: 11:00etan.

*Ate irekietara etorriko bazarete, aurrez izena ematea beharrezkoa da. Horretarako, webguneko inprimakia bete dezakezue, ondorengo telefono zenbakira deitu 943 491 659 (idazkaritza) edo ondorengo helbide elektronikora mezu bat bidali idazkaritza@haurtzaro.ikastola.eus.

